



Jesusek mundu osora bidali zituen bere dizipuluak, jendea bataiatzeko eta bekatuak barkatzeko.

Hitz egin dezagun bataioari buruz. Goazen liburuko 103. orrialdera.

«Non bataiatu zintuzteten? Zein dira zuen aita-ama pontekoak?».

Jesusen eta lehen kristauen garaian, bataioak ez ziren orain bezala egiten. Lehen, jende heldua bataiatzen zuten, kristau-ikasbidea edo katekesia egin ondoren. Liburuko 102. orrialdean ikusten den bezala, ibaietan egiten zituzten bataioak. Dizipuluek katekesia irakasten zuten, jendeak Jesusen bizitza eta mezua ezagutzeko, eta, ondoren, bataiatu egiten zuten.

«Ba al dakizue bataioak gaur egun nola egiten diren?»

Parrokian, Bataiarrian, apaizak ura isurtzen du haurraren edo helduaren burura. Bazko-zuzitik kandela bat pizten da eta gurasoei ematen zaie, haurra gidatuko duen argia izan daitezen».

«Bataiatzean, gurasoek eta aita-ama pontekoek konpromisoa hartzen dute haurra balio ebanjelikoetan hezteko, eta irakasteko otoitz egiten, besteei laguntzen, gauzak partekatzen, besteengan ere pentsatzen, eta ez norberaren buruan bakarrik, besteen ona lehenesten, lagun hurkoa maitatzen...».

«Bataiatuta gauden guztiok familia handi bat osatzen dugu, eta familia hori Eliza da».

Beste orrialdean ikus dezakezue noiz jarduten dugun Jesusen antzera. Komentatu egingo dugu, eta margotu.

Amaitzeko, kandela piztuko dugu, gurutzearen seinalea egingo dugu, eta *Gure Aita* errezatuko dugu.




..... Jesusek bezala




HARRERA




ENTZUN




LAGUNDU



MAITATU



OSPATU



BIDEKIDE